



EUSKO LEGEBILTZARRA  
PARLAMENTO VASCO

	EUSKO LEGEBILTZARRA PARLAMENTO VASCO ERREGISTRO OROKORRA REGISTRO GENERAL
2023 URT. 20 ENE. 20	
SARRERA/ ENTRADA	302
IRTEERA/ SALIDA	.....

**Dokumentu mota / Tipo de documento:** LEGEZ BESTEKO PROPOSAMENA, OSOKO BILKURAN EZTABAIDATZEKO

**Nori zuzendua / Dirigido a:** EUSKO LEGEBILTZARREKO MAHAIA

**Proposatzaileak / Proponentes:** AGIRRE, IÑAKI (EA-NV)  
ANDUEZA, ENEKO (ES-SV)

**Data / Fecha:** 2023/01/20

**Espediente zb / N° de expediente:**

**Ekimenaren izenburua / Título de la iniciativa:** UKRAINAREN BERRERAIKUNTZARI BURUZ / SOBRE LA RECONSTRUCCIÓN DE UCRANIA

#### ZIOA

Ukrainaren inbasio errusiarra ekintza gaitzesgarria da, nazioarteko komunitateak eta euskal erakundeek aringarrik gabe kondenatu dutena.

Errusiako armada nazioarteko konbentzio guztiak urratzen ari da, etengabe eta sistematikoki erasotzen baititu helburu zibilak eta metodikoki suntsitzen baititu Ukrainako ospitale-, hezkuntza-, elektrizitate-, ur- edo telekomunikazio-azpiegiturak.

Ukrainako herritarrek bizi duten egoera dramatikoa larriagotzen ari da zero azpitik 20 gradutik beherako tenperaturak jasaten dituzten negu honetan, eta XXI. mendean, hotzak eta goseak jota hil daitezkeen pertsona askoren bizitza arriskuan jartzen ari da.

Beharrezkoa da, beraz, Ukrainari laguntza humanitariao helaraztera bideratutako nazioarteko jarduera trinkoa indartzea, baina, batez ere, Herrialdeari laguntzea azpiegitura zibilak lehenbailehen berreraikitzen, bereziki, garraio, sorkuntza eta banaketa elektrikoko azpiegiturak, bai eta ur-hornikuntza ere. Euskadi oso eremu kualifikatua da ekipondasunen ekoizpenean, eta zeregin garrantzitsua izan beharko luke berreraikuntza horretan.


#### JUSTIFICACIÓN

La invasión rusa de Ucrania es un acto execrable que ha sido condenado sin paliativos por la comunidad internacional y las instituciones vascas.

El ejército ruso está contraviniendo todas las convenciones internacionales al atacar de forma continua y sistemática objetivos civiles y destruyendo metódicamente las infraestructuras hospitalarias, educativas, eléctricas, de agua o de telecomunicaciones ucranianas.

La situación dramática en la que viven los ciudadanos de Ucrania está siendo agravada en un invierno en el que soportan temperaturas por debajo de los 20 grados bajo cero, poniendo en peligro en pleno siglo XXI, la vida de muchas personas que pueden perecer por frío e inanición.

Es pues necesario reforzar una intensa actividad internacional destinada a hacer llegar a Ucrania ayuda humanitaria, pero sobre todo asistir al País en la urgente reconstrucción de sus infraestructuras civiles especialmente las de transporte, generación y distribución eléctrica así como el aprovisionamiento de agua. Euskadi es una zona muy cualificada en la producción de bienes de equipo y debiera jugar un papel importante en dicha reconstrucción.



Horregatik guztiagatik, Eusko Legebiltzarrak honako hau ebatzi du:

1. Euskal erakunde guztiei (Jaurlaritza, Foru Aldundiak eta Udalak) dei egitea Herrialdeko laguntza-agintariekin batera eta modu ordenatuan harremanetan jar daitezen eta Ukrainan oinarritzko azpiegiturak berreraikitzeke larrialdiko laguntzak premiaz eta lehentasunez bideratu ahal izan ditzaten, herrialde hori laguntza, asistentzia eta mezenasgo programen lehentasunezko helburutzat hartuta.
2. Dei hori garapenerako lankidetzako GKEei zabaltzea, Ukraina ere lehentasunezko herrialde gisa har dezaten eta laguntza-programak egin ditzaten, nazioarteko eta Europako laguntzaren esparruan, biztanleria zibilaren sufrimendua arintzeko.
3. Ukrainako azpiegitura hondatuak konpontzen laguntzeko prest dauden gure herriko enpresak animatzea, Ukraina berreraikitzeke Europako programen barruan lan horietan parte har dezaten.
4. Euskal herritarrak animatzea, ahal duten neurrian, hemen jarduten duten ukrainar-euskal elkarteen bidez, Ukraina modu penagarri eta dramatikoan utzi behar izan duten eta Euskadin finkatu diren pertsonen lagun diezaieten.

Por todo lo anterior, el Parlamento Vasco resuelve:

1. Hacer un llamamiento a todas las instituciones vascas (Gobierno, Diputaciones y Ayuntamientos) para que conjunta y ordenadamente se pongan en contacto con la autoridades asistenciales del País y puedan destinar con carácter urgente y prioritario ayudas de emergencia destinadas a la reconstrucción de las infraestructuras básicas en Ucrania, considerando a este país como objetivo prioritario de los programas de ayuda, asistencia y mecenazgo.
2. Hacer extensivo este llamamiento a las ONGs de cooperación al desarrollo para que consideren también a Ucrania país prioritario y elaboren programas de ayuda, en el marco de asistencia internacional y europeo, para aliviar el sufrimiento de la población civil.
3. Animar a las empresas de nuestro País preparadas para contribuir a la reparación de las deterioradas infraestructuras ucranianas para que se involucren en estas tareas dentro de los programas europeos establecidos para la reconstrucción de Ucrania.
4. Alentar a los ciudadanos vascos, para que en la medida de sus posibilidades, ayuden a través de las asociaciones ucranianas-vascas que operan aquí, a las personas que han tenido que abandonar de manera penosa y dramática Ucrania y se hayan establecido en Euskadi.

EA-NV

ES-SV